

Ordizian, **2016ko abenduaren 12an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

EAJ/PNVko Angelica Moreno Heras eta Ordiziako EH-BILDUKO Igor Eguren Izagirre

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

IRABAZI alderdiaren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz ere azaldu da.

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2016ko azaroaren 21ean egindako ohiko bileraren akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 4.- "UPABI" 12 HIEko urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena.
- 2.- "UPABI" 12 HIEko 12.1 Exekuzio Unitatearen Birpartzelazio proiektua onartzea.
- 5.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 eurotik beherako fakturak.
 - Goierriko Stop Desjabetzeak Plataformaren idatzia
 - .-DAR-DAREkin bilera
 - .-Angelica Moreno zinegotzi andreak bere karguari uko egin diola eta, horren berri ematea.
 - .- GAZTETXEA izandako eraikinaren tasazioa, SERVATASi eskatutakoa.
 - .- Renfeko geltokiaren inguruan irisgarritasuna hobetzeko ADIF lantzen ari den proiektua.
 - .- HAPOn (Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren) aurrerapena.
 - .- Mainstreamingerako Mahai Teknikoaren eta Mahai Politikoaren eraketa.
 - .- Mugikortasun Mahaiaren eraketa.



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16,30



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko azaroaren 21ean ohiko deialdian egindako bileraren akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko azaroaren 21eko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 63.eta 65. zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 66.926,01.-€

Sukia andrea

IZFE zerbitzuen fakturari buruz galdetu du. Alkate jaunak eskatutako informazioa eman dio.

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- “UPABI” 12 HIEko urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena.

Aho batez eman zaio aldeko irizpena.



2.- “UPABI” 12 HIEko 12.1 Exekuzio Unitatearen Birpartzelazio proiektua behin betiko onartzea.

Alkate jn.

Jakinarazi du erakusketa publikoko epean alegazio bat aurkeztu duela Beasaingo Udalak proiektuan jasotzen diren udalerriko mugen inguruan. Alegazio hau epez kanpo aurkeztu da eta gainera agirian jasotako UPABI 12 HIEko Eremuaren mugak bat datoz Ordiziako Arau Subsidiarioetan jasotakoekin. Gainera, HAPOn egindako lanetarako Aldundiak emandako udal mugak ere bat egiten du oinarrian Proiektuan markatutakoarekin.



Proiektuaren behin betiko onarpena, hasierako onarpenerako udal Arkitektoak egindako txostenean zehaztutako zuzenketekin agiriaren Testu Bategina aurkezteko baldintzarekin.

Aho batez eman zaio aldeko irizpena.



5.- Txostenak eta hainbat eskari.

.- 6000 €tik beherako fakturak.

61,62 eta 64. zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Sukia andrea

Faktura batzuen inguruko informazioa eskatu du, hain zuzen ere jatetxeetan egindako bazkari batzuei buruz, kofradiako gastuei buruz, inaugurazioetako lunch batzuei buruz eta abar.

Alkate jn.

Informazioa eman dio.

Sukia andrea

Bere ustez praktikoagoa da diru-laguntza handixeagoa ematea egokitzen bada, eta elkarteek beraiek ordaintzea horrelako gastuak.

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

.- Stop Desjabetzeak Plataformak bilera eskatu du udaleko talde politiko desberdinekin.

Bilera deialdia bidaliko zaie.

.....

Alkate jaunak ondorengo gaiari buruzko informazioa eman du:

1.- ARTERIA proiektua aurkezteko DAR-DAREkin bilera bat egingo dela.

.....



2.- Batzordeko kideei jakinarazi die Angelica Moreno zinegotziak bere zinegotzi karguari uko egin diola arrazoi pertsonalengatik. Bera ordezkatzeko egin behar diren tramiteak burutuko dira.

.....

3.-GAZTETXEA izandako eraikinaren tasazioa, SERVATASi eskatutakoa. Azaldu du Udalaren ondare-ondasuna dela eta dagokion lege prozeduraren bitartez besterendu daiteke, hala erabakitzen bada. Adierazi du eraikina erosteko interesdunen bat dagoela hotel bat eraikitzeko.

PNV, PSE-EE(PSOE) eta IRABAZI taldekoei proposamena interesgarria iruditu zaie. Ezinbestekoa iruditzen zaie Ordiziak hotelen bat edo ostatu hartzeko establezimenduren bat izatea.

.....

4.-Renfeko geltokiaren inguruan irisgarritasuna hobetzeko ADIF lantzen ari den proiektuaren berri eman du Alkate jaunak.

.....

5.- HAPOn Aurrerapen agiria dagoeneko egina dago eta komeni da agiria aurkezteko talde politiko guztiekin bilera bat egitea.

.....

6.- Mugikortasun Mahaia eratu da.

Gonzalez jaunaren ustez garrantzitsua da talde politikoaren artean sortu diren arazoak konpontzea guztiek bertan parte har dezaten.

Horrekin batera Gonzalez jaunak uste du garrantzitsua dela udal komunikabideetan mahaiak egindako lanen garapenari buruzko informazioa ematea.

.....

.- Dubreuil jaunak adierazi du mainstreamingerako Mahai teknikoa eta Mahai Politikoa eratu behar dela.

Mahai Politikoa horrela eratzea proposatzen da: sail bakoitzeko zinegotzi delegatuak, oposizioko talde politiko bakoitzeko ordezkari bana eta Irabaziko ordezkari bat.

Mahai Teknikoa horrela eratuko litzateke: sailtako arduradun eta koordinatzaile guztiak. Hurrengo Mahai Teknikoaren deialdia abenduaren 20an 11,00etan izango da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

5.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

